

onarketa akordioak ere jakinaraztea espedientean parte interesatua izan direlako, eta kasu bakoitzean aurkez daitezkeen errekurso administratibo edo jurisdikzionalak jartzeko aukera ematea.

Beste horrenbeste esan behar da gainerantzeko sailen legediari buruz, eta guztiak jasotzeko asmorik gabe ondokoak aipa daitezke: iharduera sailkatuen lizentziak emateko prozeduretan Iharduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiko 30-2.a) artikulua babesean aurkezten diren arazoibideak; Ingurugiro Eraginaren Ebaluaketari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintza Erret Dekretuko 3-1. artikuluan iragarritako hiritarrentzako informazio tramiteetan aurkeztutako arazoibideak; eta Euskal Herriko Naturaren Zainketarako ekainaren 30eko Eusko Legebiltzarraren 16/1994 legeak 7 d) artikuluan ezartzen duenaren bidetik naturako baliabideen antolamendu-planen onarketarako hiritarrentzako informazio prozesuari ere eragingo lioke.

Administrazio prozedura orokorrean jasotzen den printzipioa beste sail askoren arauetara ere ezarri ahalko litzaieke: alegia Administrazioak nahitaez erantzun behar die hiritarrek edozein informazio publikorako tramitetan aurkeztutako arazoibideei.

* * *

Azaldu dugunaren **ONDORIO** gisa hau gomendatzen da: udalek edo iharduerak burutzen dituen beste edozein administrazio hirigintza planeamenduen onarketa prozedurek jarraitu behar duten hiritarrentzako informazio epean horiek aurkezten dituzten arazoibide bakoitzari eta guztiei arazoituta erantzun behar diete, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Amankomunaren Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 27ko 30/92 Legeak 86-3. artikuluko 2. lerroaldian hori agintzen duelako. Erantzun horretan arazoibidea onartu edo atzera bota den, hori osorik edo zati batean egin den, eta hala izanez gero atzera zergatik bota den adierazi behar da.

Betebehar bera aldarrikatu behar da sailei buruzko beste edozein arau hiritarrentzako informazio tramite edo entzunaldia ezartzen dutenean, espedientea tramitatzeko ahalmena daukan administrazioa edozein delarik ere.

Azkenik, komeni da Administrazioak hiritarrentzako informazioan zehar arazoibideren bat aurkeztu duten guztiei espedientearen behin betiko onarketaren berri jakinaraztea.

7.3. FAMILIA UGARIEI BURUZKO EUSKAL LEGE BAT ONARTZEKO BEHARRA

I- Sarrera

Espanian familia babesteko politikak aurreko erregimen politikako zenbait baloreekin erlazionatu izan dira tradizionalki, baina horiek, adibidez emakumea etxeari lotuta egotea edo familia garatzeko bide bakar bezala ezkontza handiestea

gaindituz joan dira, askatasun falta konpentsatzeko nolabaiteko gurasokeriatzat jo direlarik.

Egia esan, familia babeserako programen geraldia askoz nabariagoa izan da azken urte hauetan zenbait gertakizun sozial eta ekonomikok izan dute bilakaeragatik: langabeziaren maila handiak, lan merkatuaren egonkortasunik eza edo Gizarte Segurantzako sistema tradizionalen krisia.

Zertzelada hauek eta garrantzi gutxiago ez daukaten beste batzuek kuantifikatzen zaila den islada eduki dute gure inguruaren bilakaera demografikoan, baina ikusten da poliki-poliki biztanlegoa zahartzera doala eta familia guneen tamaina txikiagotzen ari dela.

1975-1995 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoaren hazkuntza begetatiboa 24.947tik -2.182era pasatu da (EUSTAT, 1995).

Hau da, 1995ean, migrazio mugimenduak kontuan hartu gabe, EAEko biztanleria gutxitu egin da seigarren urtean jarraian hildakoak jaio direnak baino gehiago izan direlako, ordezkatzeko mailaren azpitik jarriaz.

Datu horrek, berez kezagarria izan behar ez duen arren, dakarren ondorioa biztanleria aktiboaren eta haien menpeko biztanleriaren (gazteak eta adin handikoak) harreman gehikuntza da, pertsona aktibo kopuru nahiko murrizt batek belaunaldi gazteenei eta zaharrenei eutsi behar dielarik.

Edonola, hori ikusita ez da pentsatu behar aginte publikoek familia babesteko alorrean burutu behar duen iharduera helburu demografikoak lortzera bideratu behar denik, baizik aspektu ekonomiko nahiz sozialean umeak izateak dakartzan ondorio txarretako batzuk: etxebizitza lortzea, eguneroko gastu handiagoak, lanbide ardurekin bateragarritasuna, emakumea lan merkatuan sartzea, etabar arintzeko ikuspegiarekin lana egin behar dute.

Azken batean, familiek zenbat ume eduki nahi dituzten libreki aukeratzeko bidea sustatu beharko litzateke.

Ikuspegi horretatik, familiei orohar eta ugarietara bereziki murriztapenak eta exentzioak ezartzeko politikak ideia nagusi hau dauka: gastuak gertatzen diren unean gizarte zamak arintzea, horrela familiek daukaten errenta igo eta seme-alabak eduki eta hezitzetik eratorritako ongizate diferentzialak murrizteko, batez ere egonkortasun edo hazkuntza demografikoan laguntzen duten familien kasuan (bi edo seme-alaba gehiago). Gai honi buruz egin diren azterketek diotenez, umerik ez daukan familian lehen umea jaio ondoren *per capita* errenta %62ra jaisten da, %48ra bigarrenarekin eta %40ra hirugarren umea jaiotzearekin.

Gastua sortzen den unean hori konpentsatzeko eredu honen parean dauden beste neurri batzuek, zerga pertsonaletan eta batez ere PFEZn dauden zergagabetzeek eta kenketek muga teknikoekin topo egiten dute, horiek erretarik txikiena daukatenei eragiten dietelarik.

Adibidez, PFEZren kuotan seme-alaben arabera ezartzen diren kenketak, gaixotasun gastuekin edo aurrekoen eta elbarrien kenketekin gertatzen den bezala, ezin dira aplikatu horren sujetu pasiboak aitorpena egiteko eskatzen den gutxienezko errentara iristen ez direnean, edo egindako errententziorik egin ahalko litzuketuen kenketen batuketara baino txikiagoak direnean.

Bi hitzetan esanda, seme-alabak eduki eta urtean milioi bat pezeta gordineko irabaziak dauzkan langabetu bati bost axola dio PFEZen araudiak seme-alaba bakoitzagatik 20.000 pezetako kenketak iragartzea, baldin eta egindako erretentzioa zero edo haien batuketa baino txikiagoa izan bada.

Aldiz, aginte publikoek sailen sustapenerako dauzkaten beka edo laguntzak bezalako politiken galerarik gabe, familiek berehalako onura bat jasotzen dute, adibidez unibertsitate ikasketetarako matrikuletan edo garraio publikoetako txarteletan portzentaia jakin bateko hobariak ezar dakizkiekeenean.

II- **Familia ugarietako babesa indarrean dagoen legedian**

Familia eta bereziki familia ugaria babestera bideratutako neurrien nondik norakoa orokorki deskribatu ondoren, gaur egun eta alor honetan aginte publikoek daukaten iharduera eremua azalduko dugu.

Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalak 3. puntuan dioenez, familia da gizartearen elementu naturala eta funtsezkoa, eta gizarteak eta Estatuak babestua izateko eskubidea dauka.

Bestetik, 1966ko abenduko **Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak** ere 23. artikuluan gizarteko elementu naturala eta funtsezkoa familia dela eta gizarteak eta Estatuak babestua izateko eskubidea daukala esaten du.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an erabaki eta Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsi zuen **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak** aitortzen duenez, haurrak, bere nortasuna osorik garatzeko familia batean hazi behar du, eta familia da gizartearen funtsezko multzoa eta bere kideen, bereziki umeen hazkuntza eta ongizaterako bitarteko naturala; horregatik Estatu kideek gurasoen, tutoreen edo beste pertsona arduradunen eskubideak eta betebeharrak errespetatu egin behar dituzte, horiei dagokielako bereziki haurrari garapenerako behar dituen bizi baldintzak eskura jartzea.

Espainiak 1980an berretsi zuen **Europako Gutun Sozialak**, familiaren babesa bermatzen du artikulua multzo baten bidez; horien artetik garrantzitsua 16. artikulua da eta hau dio: *“Gizartearen funtsezko zelula den familiaren garapen osorako beharrezkoak diren bizi baldintzak lortzeko, herri sinatzaileak familiaren babes ekonomiko, juridiko eta soziala sustatzera konprometitzen dira...”*.

Europako Batasunak hartutako erabakien artean, familiaren Nazioarteko Urtearen amaieran familien eta familia unitateen Babesari buruzko Europako Parlamentuaren ebazpena aipatu behar da (1995eko urtarrilaren 23ko 12C18).

Estatuko antolamendu juridikoan ere, Konstituzioak 9.2 artikuluan hau adierazten du:

“Botere publikoei dagokie baldintzak bultzatzea pertsonaren edo horiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen, bai eta eskubide horien gauzapena zailtzen dituzten oztopoak kentzea eta hiritarren politika, ekonomia, kultura eta gizarte mailako partaidetza erraztea ere”.

Aitorpen honekin batera, Konstituzioaren aintzin tituluan sartzen den aitorpena delako antolamendu juridiko osoa eratzen duena, politika sozial eta ekonomikoaren gida-printzipioei buruzko I. tituluko hirugarren atalean, 39. artikulua honela dio:

“Botere publikoek familiaren babespen sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dute”.

Aldi berean, Euskal Autonomi Estatutuak ere aginte publikoen gain uzten du hiritar guztiei Euskal Herriko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzea errazteko agindua (9. art.).

Familiari eskaini beharreko atentzioa, oro har gizarte laguntzan, gizarte ongizatean eta gai hau arautzen duten maila ezberdinetako beste agindu guztietan erabiltzen diren baliokideen barruan kokatu behar da.

Espainiako Konstituzioak aipatzen duen “gizarte laguntza” kontzeptua, Konstituzio Auzitegiak berak esan duenez (76/1986 epaia) ez dago Funtsezko Arauaren testu barruan jaso, eta beraz, nazio eta nazioarte mailako praktikaren bidez burutu eta kontsagratutako kontzeptuetara jo behar da, alegia hori interpretatzeko indarrean dagoen legeditik atera daitezkeen irizpide materialetara jo beharra dago. Horregatik, Auzitegiak indarrean dagoen legedia hartu eta hau dio: *“badago Gizarte Segurantzatik kanpoko laguntza, alegia hor sartzen ez den gizarte laguntza, eta ulertu behar da Espainiako Konstituzioak 148.1.20 artikuluan horri buruzko erreferentzia egiten duela, eta beraz Autonomia Erkidegoen eskuduntza posiblea litzateke”*, eta bide hori gizarte laguntza horren hartzaile edo erabiltzaileek inolako betebeharririk gabe finantziatzen da.

Aldi berean, Auzitegiaren iritziz Konstituzioaren, autonomi estatutuen eta eskualdaketa dekretuen azterketatik begiraturaz, eskuduntza banaketarako aurrakusten den gizarte laguntza nozioak erakunde pribatuek emanikoa ere hartzen du, aginte publikoek sustapen edo kontrol funtzioak bakarrik burutzen dituztenean (azaroaren 25eko 146/1986 epaia).

Konstituzioaren 148.1.20 artikulua arabera, autonomia erkidegoek “gizarte laguntza” gaiari buruzko eskuduntzak beren gain hartu dituzte.

Horrela, Estatuaren administrazio orokorretik familien babeserako garatzen diren politikak, administrazio horri geratzen zaizkion eskuduntzen arabera garatzen dira, hau da: Gizarte Segurantzako oinarrizko legediaren eta izaera orokorreko arau fiskalen bidez, eta Konstituzioak 149.3 artikuluan jasotzen duen zuzenbide estatalaren ordezkio klausularen bidez burutzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, eskuduntza hori Autonomi Estatutuko 12.12 artikulua eta irailaren 26ko 2768/80 Erret Dekretuaren bidez lortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren esku geratu zirelarik Estatuak Osasun, Zerbitzu eta Gizarte Laguntza alorrean ordurarte zeuzkan betekizunak.

Bertan, Kataluniako Generalitateari zerbitzu berak pasatzeko onartu zen Erret Dekretuan gertatu zen bezala, familia ugarien gaia espreski adierazten ez den arren, ondoren, gainerantzeko autonomia erkidegoei zegozkien autonomi estatutuak onartu ondoren, horiei zegozkien erret dekretuek bai aipatu zuten zehazki familia ugarien gaia (2411/82 ED Galiziaren kasuan; 2607/82

Kantabriarenean; 1975/84 Gaztela-La Mancharenean, etabar.), ondoko formularen bidez:

“Familia ugarietako dagokienez, (...)ko Autonomia Erkidegoari dagokio horien izaera aitortzea, tituluak luzatzea eta horiek berritzea estatuko eredia jarraituz, eta baita indarrean dagoen legediak finkatutako modu eta kantitateekin zigorak ezartzea ere”.

Familia ugarien gaiari buruzko aipamen zehatz hori ez dagoen arren, Lurralde Historikoei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen bidetik EAeko erakunde amankomunek lurralde historikoetako foru erakundeei pasatu zizkien gizarte laguntzarako zerbitzuak, eta oraingoan bai aipatzen zen **“familia ugari tituluak luzatzea”**.

Orain arte esan dugun bezala, EAek gizarte ongizatean eskuduntza osoak badauzka, eta nozio hori norainokoa den legetik bertatik atera behar badugu irizpide materialetan oinarrituz, oraindik diogu Eusko Legebiltzarrak familien babeserako, eta zehazkiago familia ugarietako buruzko lege propio bat onar dezakeela.

III- Familia ugarietako buruzko euskal lege baten justifikazioa

Ezer baino lehen esan behar da gomendio honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan familia ugarietako buruzko lege propio bat onartzeko dagoen aukera planteatu besterik ez dela egin nahi, ondoren azalduko diren arrazoiengatik, erakunde honen ustez aginte publikoek berehala heldu behar diotelako gai zehatz honi. Honek ez du esan nahi eskuduntzak dauzkaten erakundeek babes esparru honetan planteatzen diren arazorik larrienei erantzuteko agindu berezi bat onartzeko aukera egin ezin dutenik, edo baita ere aipatu ez baina aurrekoa bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuagoak diren beste gai batzuk ere jasoko lituzkeen beste marko zabalago batean beraien iharduera arautu ezin dutenik, adibidez Kataluniako Generalitateak azken bide hau erabili zuen Gizarte Ongizate Sailak 1992ko ekainaren 10ean Familiaren Sustapenerako Plan Integralerako Ebazpena onartu zuenean.

Edonola, eta esan den bezala, gaur egun familia ugarietako buruz dagoen arauketan aipatu beharreko disfuntzioak ikusi dira.

A) Familia ugarietako babes arautzen duten aginduak zaharkituta eta sakabanatuta daude

Mila bederatziehun eta berrogeita hiruko abenduaren 13ko legea ordezkatu zuen familia ugarietako buruzko ekainaren 19ko 25/1971 Legea da gai honetan dagoen erreferentzia nagusia. Bertan esaten da zer ulertzen den familia ugarietako, zein diren izaera horri dagozkion onurak eta erakunde publiko nahiz pribatuei horiek ez betetzeagatik zein zigor dagozkien.

Lege hori abenduaren 23ko 3.140/1971 Dekretuaren bidez garatu zen, zeinak bere Araudia onartzen baitu eta funtsezko aspektuei dagokienez 1987ko

Estatuko Aurrekontu Nagusien Legearen eta berrikiago neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko abenduaren 30eko 42/1994 Legearen bidez aldatu baitzen, azken honek familia ugari kontzeptua hiru seme-alaba edo gehiagoz osaturiko familiara zabaldu zuelarik; azken arauketa hau azaroaren 3ko 1801/95 Erret Dekretuaren bidez garatu zen.

Familia ugariekiko babesari dagozkion beste aspektu zehatzak jasotzen dituzten beste agindu batzuk ondokoak dira: uztailaren 10eko 1860/75 Dekretua, lege sozialak hausteagatik zigorrak ezartzeko prozedura onartzen duena; Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren 1972ko maiatzaren 26ko Agindua, Estatuko erakundeek argitaratutako liburuak eskuratzeko onurei buruzkoa; Garraioei buruzko 16/1987 Legea eta hori garatzen duen Araudia, garraioetako tarifa murrizketei dagokiona; etabar.

EAEari dagokionez, aipatzekoa da tratu ezberdina ematen zaiela familia ugariei unibertsitateko ikasketetan eta unibertsitatez kanpokoetan, edo EUSKOTRENEk ematen dituen abantailetan familia ugarientzat aurreikusita dauden onuretan.

Maila ezberdineko arau horiek kritikoki aztertzen baditugu, lehenik sakabanatuta daudela eta elkarren artean loturarik gabeak direla ikusten dugu, eta bigarrenik, Konstituzioak eta autonomi estatutuek diseinatutako eskuduntza banaketara egokitu gabe daudela, horiek onartu aurrekoen kasuan, eta batzuetan, zigorrekin gertatzen den bezala, Konstituzioak jasotzen dituen printzipioen kontra ere joan daitezke.

B) Egungo gizarte errealitatearekiko egokitasunik eza

Euskal Autonomia Erkidegoak daukan eskuduntza maila kontuan izanik, familia ugariekiko babesa erregulatuko duen araudia sistematizatzeke lanak, gaur egun familia horiei estatu mailan ematen zaien tratamendua hobetzeko premia planteatzera ere bagaramatza.

Gure erkidegoak maila sozioekonomikoan daukan zenbait berezitasun justifikatu beharrik gabe, familia ugariekiko babesa lurralde amankomunean indarrean dagoena baino zabalagoa izan daiteke.

Izan ere, neurri fiskal administratibo eta sozialei buruzko abenduaren 30eko 42/1994 Legeak laugarren xedapen gehigarrian sartutako aldaketa, alegia familia ugari izaera hiru seme-alaba edo gehiago zeuzkatenetara zabaltzea erabaki zuena, esan daiteke motz geratu zela 25/1971 Legeak beste kasu baliokide batzuei ematen zien tratamendua kontuan hartzen badugu.

Zehazkiago esateko, 25/1971 Legeak, familia ugaritzat lau seme-alaba edo gehiagoz osatutakoa jotzearekin batera, hiru seme-alabaz bakarrik osturikoak ere hartzen zituen horietako bat elbarria zen kasuan, edo gurasoetako bat hilda, banatuta edo dibortziazatuta zegoen kasuan.

Arrazoizkoa zirudien 42/1994 Legearen bidez neurria hiru-seme-alabaz osaturiko familiei hedatzean, zertzelada kualifikatu horietakoren bat zegoenean bik bakarrik osatutakoei ere ezarri izana.

Baina ez zen horrela gertatu, eta esan daiteke kasu horiek irentsi egin zirela, analogiaz bi seme-alabaz osaturikoei eman ahal zitzaien tratamenduan ez zuela eduki zegokion islada, baina bestetik ezin da inolako zalantzarik gabe esan beste politika sektorial batzuen bidez kolektibo horiei ematen zaien tratamenduan egondako hobekuntza dela medio alor horretatik ematen den babesean sartzeko beharrik eza justifikatzen dutenik.

Gai honek 1996an Arartekoari kexak aurkeztea ekarri du, eta horrek erakusten digu badagoela sentiberatasun bat gaurkoz behintzat ase gabe jarraitzen duena.

EAEko erakundeek, bidezkoa iruditzen bazaie, eta Estatuko legegileak familia ugarientzat ezarritako babes muga hori zabaltzea eskatzen duten eskari hau eta beste batzuk asetsea erabakiko balute, horretarako daukaten gaitasunari dagokionez berriro lehen esandakoa gogoratu behar diegu, alegia Autonomi Estatutuaren 12.12. artikulua bidez EAEk gizarte laguntza gaietan eskuduntza osoak dauzkala, eta erakunde honen ustez hori horrela izanik Estatu mailako legedia autonomia erkidegoek onartutakoaren osagarria dela esan daiteke.

Estatuak maila honetan titulu propiorik aldarrikatzen ez duenez gero, Konstituzio Auzitegiak berak interpretazio hau eman du:

“Eskubideen baliapenean eragina daukan arren, arau legalak baliapen horren oinarritzko baldintzei eragiten ez dienean Autonomia Erkidegoek aldarrika dezakete arau hori, baldin eta horien Estatutuek maila batean edo bestean Konstituzioaren bidez bermatutako eskubideez baliatzeko araudiak derrigor berekin dakarren arauketa ahalmenak ematen badizkiete (...)

Printzipio horien artetik lehena espainiar guztiek lurralde nazionaleko edozein lekutan egonda ere daukaten eskubide eta betebeharrak berdintasuna da. Baina garbi dago printzipio hori ezin dela ulertu inondik ere Antolamenduaren berdintasun zorrotz eta monolitiko bat bezala, hau da, zertzelada berdinetan eta lurralde nazionaleko edozein lekutan eskubide eta betebeharrak berberak dauzkatela hiritarrek” (37/1981 AKE; JC 2, 293).

Izan ere, Konstituzioaren 149.1.1. artikulua arabera Estatuak ulertuko balu ere gai honek espainiar guztiek dauzkaten eskubideekiko tratu berdintasuna bermatzeko oinarritzko baldintzari eragiten diola, eta ondorioz familia ugariei buruzko baldintzak ezartzeko ahalmena beretzat gordeko balu ere, hori “ezin da ulertu Konstituzioak bermatutako eskubide eta betebeharrak zuzenean edo zeharka eragiten dieten eta Autonomia Erkidegoek daukaten lege eskuduntza ugarien edukia hustu dezakeen moduan” (KAE 37/1987).

C) Zigorrek ezartzeko erakunde eskuduna eta zigorren mailaketa

Indarrean dagoen familia ugariei buruzko ekainaren 19ko 25/1971 Legeak eta 1971ko abenduaren 23ko Dekretu bidez onartutako Legearen Araudiak fa-

milia horientzako salbuespen eta murriztapen batzuk ezartzen ditu hezkuntza, etxebizitza, garraio etabarri dagokionez, eta zerbitzu horiek ematen dituzten erakunde pribatu nahiz publikoek nahitaez bete behar dituzte.

Horrela, aipatu legeko 25. artikulua honela dio:

“Lan Ministerioak zigortu egingo ditu lege honen eta bere ezarpenerako eta garapenerako aginduen bidez finkatutako onurak eman nahi ez dituzten enpresa eta erakunde pribatuak mila eta ehun mila pezeta arteko isunekin”.

Uztailaren 10eko 1.860/75 Dekretuak bere aldetik gizarte legeak hausteagatik zigorrak ezartzeko administrazio prozedura ezartzen du, eta 2. artikulua arabera, zigor prozedura horren menpe geratzen dira besteak beste familia ugari onuradunak, **“eta baita beste pertsona fisiko edo juridikoak ere, publikoak nahiz pribatuak izan, egiten dituzten ekintzengatik edo betetzen ez dituzten aginduengatik, Lan Ministerioak ikuskatu behar dituen xedapenek ezartzen dutenari dagokionez”.**

Estatu autonomikoaren indarrean sartu eta autonomia erkidegoek beraien estatutuen bidez ordurarte Estatuak zeuzkan eskuduntzen ardura hartu ondoren, eskuduntza horiei zegozkien zerbitzuak eta erakundeak eskuz aldatzeari ekin zitzaion, eta gizarte laguntzari dagokionez Euskal Herrian irailaren 26ko 2.678/1980 Erret Dekretuaren bidez gauzatu zen esku aldaketa hori.

Lehen esan bezala, erret dekretu horretan, eskuduntzak beste autonomia erkidego batzuetara pasatzea onartzen zuten beste batzuetan ez bezala, ez dira aipatzen zehazki familia ugari tituluak eta gaiari buruzko legedia hausteagatik ezar daitezkeen zigorrei buruzko eskuduntzak.

Edonola, Eusko Jaurlaritzak Autonomia Erkidegoko erakunde amankomunen gizarte laguntzarako zerbitzuak lurralde historikoen esku jartzeko onartu zituen dekretuetan bai aipatzen da zehazki familia ugari tituluak luzatzeko ahalmena.

Mila bederatziehun eta laurogeita hamaseian ikastetxe batzuek onura horiek aitortzeari uko egin diotelako bideratu diren zenbait kexaren bidetik, erakunde honek, gaiari buruzko beste erreferentzia zehatzik ez zegoela ikusirik eta familia ugari izaera aitortzeko ardura daukan erakundeak berak lege hausteengatik zigorrak ezartzeko ahalmena edukitzea arrazoizkoa zela iritzita -beste autonomia erkidego batzuetan horrela gertatzen baita-, eragindako ikastetxeei zegokien lurraldearen arabera lurralde horietako foru aldundietako gizarte ongizate sailei igorri zizkien kexak, beharrezko neurriak har zitzatela eskatuaz.

Foru aldundiek, ordea, Eusko Jaurlaritzako erakunde eskudunaren iritziairen kontra zigorrik jartzeko gaitasunik ez daukatela adierazi dute, lehen aipatu diren xedapenetan ahalmen hori espreski ez dela aipatzen iritzi dutelako.

Zigor prozedura, eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen edozein xedapenetan bildutako aginduen bermerako bitarteko garrantzitsua da, noski, eta azken finean aginte publikoek beraiek emandako aginduak betearazteko eskura daukaten tresna da.

Beste era batera esanda, gai hauei buruz diseina daitezkeen araurik handinahienak ere ezerezean geratuko dira, aldi berean arauak aitortzen dituzten

eskubideak gauzatzera behartuta dauden agenteen ezezko erreakziorako tresnak ezartzen ez badira.

Hori da hain zuzen gaur egun EAEn gertatzen ari dena, esan dugun bezala foru aldundiek ez baitute beraien gain hartu nahi 25/71 Legean jasotako xedapenak ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko gaitasuna, eta horren ondorioz, onura jaso beharko luketenen hezkuntza eta garraioa bezalako alorretan dagozkien hobariak jasotzea galerazten dute.

Bestalde, 25/71 Legean ezarrita dauden zigorren zenbatekoa eta mailaketa eguneratu egin behar dira Konstituzioaren arabera antolamenduarekin adosteko.

Arartekoaren iritziz, hori da Euskal Autonomia Erkidegoan familia ugarien babeserako dagoen egungo sistema berehala aldatzeko premia erakusten duen beste funtsezko arrazoi bat.

Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean eskuduntzei buruz sortu den desadostasun arazo hori, baldin eta lehenago akordio batera iristen ez badira, osatu berri den Ebazpen Batzordeari jakinarazi beharko litzaioke atzerapenik gabe, batzorde hori arautzen duen ekainaren 30eko 13/1994 Legearen 63. artikuluari jarraituz, auzitan dauden betekizunak gauzatzeko errekerimendua alde aurretik eginaz.

IV- **Ondorioak**

- Indarrean dagoen antolamendu juridikoak aginte publikoei ezartzen die familiaren babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa bermatzeko betekizuna.
- Azken bi hamarkadetan gertatu diren aldaketa sozioekonomikoei agerian jarri dute aurreko politikaldian diseinatu ziren familien babeserako politiken geraldia, eta horregatik horiek eguneratzeko ahaleginak egin behar dira.
- Familia ugarietarako murriztapen eta salbuespen politiken bidez gastuak sortzen diren unean zama sozialak arindu nahi dira, erabil daitekeen errenta horrela gehitu eta umeak eduki eta hezitzearen ondorioz sortzen diren ongizate aldeak murrizteko.
- Familiei oro har eta familia ugarietarako bereziki eman beharreko babesa, Gizarte Segurantzaren bitartez bideratzen denaz gain gizarte laguntzaren esparruan kokatu behar da, eta beraz, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen osoak dauzka alor horretan (Estatutuaren 12.12 art.).
- Familia ugarien babeserako indarrean dagoen legediak, sakabanatua egoteaz gain, Konstituzioaren aurreko xedapenak dauzka, eta beraz, ez du ezagutzen haren bidetik egindako eskumen antolamendu berria, eta zenbait kasutan, zigorren ezarpenari dagokionean adibidez, bere printzipioen kontra joan daiteke.
- 25/71 Legeak familia ugarietarako ematen dien tratamendua EAEko lege propio baten bidez hobetu daiteke eta hobetu behar da, neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko 42/1994ko Legearen bidez aldaketa egin baino lehenago aitortzen ziren beste kasu baliokideekiko babesera hedatuaz.

- Familia ugarien babeserako aspektu garrantzitsuen arauketari dagokionez, guztiz garrantzitsua da EA Eren esparruan familia horiei aitortutako onurak errespetatu nahi ez dituztenei zigorrak ezartzeko ahalmena edukiko duen erakundea nor izango den zehaztea, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean sortu den eskuduntza-auzi negatiboa ikusirik.
- Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak aldundiei eskuduntza horiek berain gain har ditzatela errekeritu ondoren, Ebazpen Batzordearen eskuetan jar dezala gaia behin betikoz argitu dadin.

Azaldu den guztiagatik, Arartekoaren ustez Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunek hemen aipatu diren gaiei erantzungo dien arau bat onartu beharko lukete, antolamendu juridikoak era horretara hiritarren eta horiek osa ditzaketen familia ugarien eskubideak defendatzeko tresna bat gehiago edukitzeko bidea eginaz.

7.4. HAUR-HEZKUNTZA ETA FAMILI ETA LANBIDE ARDUREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA

Sarrera

Haur-hezkuntzari buruzko kexen tramitazioen bidetik erakunde honek bidezkoa ikusi du eskolatze goiztarreko adinean dauden haurrekiko konpromezu argia eskatzen duten gizarte premia berriei buruzko gogoetarako dei bat egitea.

Arartekoari planteatu zaizkion kexa gehienek, arian-arian bi urteko haurrentzat irekitzen ari diren eskola-gelen bidetik sortu diren aspektu oso zehatzak planteatu dituzte. Beste kasu batzuetan, ordea, erakunde honen bitartekaritza eskatu da hezkuntza-etapa honetako, alegia 0-3 urte arteko haurrentzako lehen zikloa etorkizunean indarrean sartzen denerako erreferentzia argirik ez dagoelako. Horren bidetik arazo handiak ikusi dira, besteak beste ondorengoak: hezkuntza-maila honen programazio orokorra, dauden giza baliabideak eta materialak arian-arian irakaskuntza berrietara egokitzen joan beharra, hezkuntza-aro berri hau finantziatzeko aukerak, etabar.

Lehen hurbilketa batean pentsa daiteke adin txikiko haurrekiko atentzioa eskola ikuspegi hutsetik planteatu behar dela. Noski, gai batzuk ikuspegi horretatik bakarrik planteatu ahalko dira. Baina, gaurko gure gizartean haurrei eskaini beharreko atentzioaren premia berriak direla medio, kexa horiek planteatzen dituzten hainbat gai ikuspegi askoz globalago batetik aztertu beharra dagoela erakusten dute: horiek famili eta lanbide ardurak bateragarri bihurtzeko beharrekina lotuta daude, eta honek ikasleen eskolatzeak behar dituen beste neurri osagarri batzuk kontuan hartzera garamatza.

Horregatik, famili eta lanbide betekizunen bateragarritasuna lortzeko premia horren bidetik planteatu diren inizatiba esberdinez arduratuko gara jarraian, abiapuntuko baldintza hau finkatu ondoren, eskolatze goiztarreko adinean dauden haurrei eman beharreko atentzioari buruzko eztabaida zuzen kokatzeko.